



elkarrekin konpostatu dugu?

1. Urteko emaitzak eta ebaluazioa



LEZO ongizate iraunkorra



Lezoko Unibertsitateko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Arazaketa Departamentua

1. PROZESUA ABIAN JARTZEA
2. JARRAIPENA
3. BESTELAKO EKIMENAK
4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK
5. HEMENDIK AURRERAKO HOBEKUNTZAK
6. BALORAZIOA



1. PROZESUA ABIAN JARTZEA

Joan den azaroan abiatu genuen auzo-konpostatze kanpaina. Ekimen hau hondakinak murrizteko udal-egitasmoen baitan kokatzen da. Izan ere, ez dugu ahortzi behar Europako Batasunaren 2008/98/CE Zuzentarauak eta honen garapena egiten duen 22/2011 Legeak (hondakinak eta kutsatutako lurrei buruzkoak), hierarkia argi bat ezartzen duela hondakinen kudeaketarako:

- 1.- Hondakinen prebentzioa eta murrizketa
- 2.- Berrerabilpenerako prestatzea
- 3.- Birziklapena
- 4.- Bestelako balorizazioa (adibidez: energetikoa)
- 5.- Ezabatzea (zaborteak)



1. PROZESUA ABIAN JARTZEA

Auzo-konpostajea herriko 6 gunetan abiatzea erabaki zuen Udalak, besteak beste, ezarpenerako eremu egokien kokapena eta auzoko biztanle kopurua kontuan hartuz.

- ☐ Altamira auzoan (90 familia)
- ☐ Aralar kalean (62 familia)
- ☐ Alde Zaharrean (139 familia)
- ☐ Lopene auzoan (99 familia)
- ☐ San Pedro-Pisbe auzoan (80 familia)
- ☐ Arretxene-Txulotxo kalean (86 familia)



1. Aralar



2. Lopene



3. San Pedro-Pysbe



4. Arretxene-Txulotxo



5. Altamira



6. Alde Zaharra



1. PROZESUA ABIAN JARTZEA

Auzo-konpostaje kanpaina abian jarri genuen lehenik ekimenari buruzko **informazio-saioak** antolatuz:

- **Lopene:** 2014/09/24 (Tomas Garbizu Musika Eskolan)
- **Aldezaharra:** 2014/09/25 (Euskara eta Kultura Aretoan)
- **Arretxene-Txulotxo:** 2014/09/29 (Tomas Garbizu Musika Eskolan)
- **Altamira:** 2014/09/30 (Altzate Altamirako Auzo Elkartean)
- **San Pedro-Pisbe:** 2014/10/01 (Tomas Garbizu Musika Eskolan)
- **Aralar:** 2014/10/02 (Tomas Garbizu Musika Eskolan)



1. PROZESUA ABIAN JARTZEA

Informazio-saioez gain, kanpainaren berri eman genuen honako **komunikazio-euskarriak** baliatuz:

- Etxez etxe banatutako esku-orriak
- Kalean jarritako kartelak
- Gune bakoitzean kokatutako panelak
- Prentsa-oharrak
- Kontsumo Arduratsuaren 3. Azoka
- Bandoak
- Udalaren webgunea



1. PROZESUA ABIAN JARTZEA

Egitasmoaren berri eman ostean, konposta nola egin jakiteko formazio-saioak antolatu genituen, alde teorikoa eta alderdi praktikoa banatuz:

- Tomas Garbizu Musika Eskolan (2014/11/05)
- Euskara eta Kultura Aretoan (2014/11/06)
- Euskara eta Kultura Aretoan (2015/11/08)

Urtean zehar ere, partaide berriak gehitu ahala, hauekin formazio-saioak antolatu ditugu konposta-guneetan.



1. PROZESUA ABIAN JARTZEA

Auzo-konpostan izena eman nahi zenuten guztioi, konpromiso eskaera bat betetzeko eskatu dizuegu, besteak beste, gunearen erabilera egokia eta etxeko biohondakinak bertara eramateko.

Horrekin batera, konposta egiteko paperezko gida, zuen gunera sartzeko giltza eta atez ateko bilketarako zutoinean jartzeko pegatina.



2. JARRAIPENA

Hondakin organikoak konpostagailuetan botatzen hastearekin batera, jarraipen bisitak egin ditugu aldiro-aldiro; hasieran astero, ondoren bi astean behin eta, azkenik, hilero.

Bisita hauetan pausu hauek jarraitu dira:

- ✓ Gunearen eta tresnen egoera orokorra aztertzea
- ✓ Konpostagailuak ireki eta temperatura neurtzea
- ✓ Iraulketa/nahasketa egin da eta konpostatzeko egoki ez diren zatikiak atera dira
- ✓ Behar izatekotan, egituratzailea bota edo ureztapena egin da, hezetasun maila orekatzeko.
- ✓ Egituratzailearen egoera aztertu eta beharrak antzeman dira
- ✓ Kudeaketarako beharrezkoak diren ekintzak gauzatu dira: heltze-faserako konpostagailuaren itxiera eta konpostaren leku aldaketa, oharrak jartzea, etab.



3. BESTELAKO EKIMENAK

Konpostaren festa

Egindako azken jarraipen-bisitetan zenbait konpostagailuren azpialdeko biohondakina dagoeneko konpostatua zegoela ikusirik, hau ateratzeko erabakia hartu genuen. Konposta nola atera erakusteko, Arretxene-Txulotxo gunean elkartzeko deialdia luzatu genizuen. Konposta ateratzeko, Elkarrekin taldeko teknikariak, Udaleko teknikariak, herri-baratzetako boluntarioak eta zuetako zenbait herritarrek hartu dugu parte.

Eskolen bisitak

Ikasturte honetan Eskolako Agenda 21 programaren baitan Elikadura eta Hondakinak lantzen ari direnez, herriko hiru ikastetxeekin auzo-konposta gunera batera bisitak antolatu ditugu: Institutuko 4. mailako talde bat, Herri Eskolako 2. mailako ikasleak eta Pasaia-Lezo Lizeoko 2. mailako ikasleak.



4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK


Jarraipen bisitetan, oro har, ondo ari garela antzeman dugu. Halere, badira hobetu beharreko puntuak:

1. Egituratzailerak oso hezea egon da hasierako hilabeteetan eta horrek konpostatze prozesua moteldu egin du. Horretaz gain, adarrak eta egur zati handiak zeuden, konpostatze prozesua oztopatuz.
2. Egituratzailerak asko bota da hondakin organikoak estaltzeko eta, horrek, konpostagailuak oso azkar betetzea eta konposta egituratzailerak askorekin agertzea ekarri du.
3. Konpostagailuko edukia ez da ondo nahastu eta, horrek, edukiaren trinkotzea, usteltzea edo xagutxoak azaltzea ekarri du.
4. Hondakin organikoak ez dira ondo banatu
5. Zakar poltsak azaldu dira guneezberdinetako konpostagailu hutsen barrualdean (batez ere San Pedroko gunean).
6. Badira izena eman, baina parte hartzen ez duten familiak.
7. Zati oso handiak azaldu dira zenbait konpostagailuetan, konpostatze prozesua zailduz.

4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK



4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK



4. TOPATUTAKO INTZIDENTZIAK



5. HEMENDIK AURRERAKO HOBEKUNTZAK

Antzemandako intzidentziak nolakoak diren ikusita, Udalak honako hobekuntza-neurriak jarriko ditu abian:

1. Egituratzaille hau Sanmarko Mankomunitatetik ekartzen zen eta, une honetan, Udalaren kimaketetatik lortutako egituratzailea erabiliko da.
2. Konpostagailuen barruan, egituratzaille asko dagoenez, hemendik aurrera jarduteko aukera bi aztertzen ari gara: 1) egituratzailea denboraldi batez ez ekartzea; 2) egituratzailea jarraipen bisitetako teknikariek behar den neurrian botatzea.
3. Jarraipena egiten duten eta parte-hartzen ari diren familien arteko komunikazioa hobetzeko, konpostaguneetan jartzen diren informazio-oharrez gain, konpostagailuetan bertan jarriko diren koloretako pegatinen bidezko abisuak emango dira: 1) kolore gorria duten pegatinak jarriko dira konpostagailuaren edukia nahastu gabe edo ondo nahasia ez dagoela jakinarazteko; 2) kolore urdineko pegatinak jarriko dira botatako hondakin organikoak zati txikiagotan txikituta eraman behar direla jakinarazteko.

6. BALORAZIOA

Izandako oztopoak oztopo, urte bete igaro ondoren, Udalak egiten duen balorazioa positiboa da:

- ✓ Egun **95 familia inguru ari dira auzo-konpostean** (herriko biztanleen %5 ia), hasieran aurreikusitako 120 familiatatik hurbil.
- ✓ Edonola ere, aipatu beharra dago gune guztien erabilera ez dela berdina: Alde Zaharreko edo Arretxeneko guneen erabilpena %100koa da, baina San Pedro eta Altamirako esaterako, %50aren azpitik kokatzen da.
- ✓ Egun parte-hartzen duten familia kopurua kontuan izanik eta, batz bestea, familia bakoitza hiru senidez osatua dagoela onartuz eta pertsonako 0,21kg. biohondakin sortzen direla estimatuz, **urte honetan ia 22.000 kilogramo konpostatu dira.**
- ✓ Gainera, hondakin organiko hauek sortutako tokian bertan kudeatu direnez, hauen bilketari egotzitako joan-etorriengatik sortutako Berotegi Efektuko Gasen isurpenak ere murriztu egin dira.

Mila esker eta hurren arte!

